




Haritik

Egungo europako itun
konstituzionalari ez

ipar•hegoa



IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

EGUNGO EUROPAKO ITUN KONSTITUZIONALARI EZ

SARRERA

I.- EGUNGO EUROPAKO ITUN KONSTITUZIONALA

- 1.- EUROPAKO ERAIKUNTZAREN AURREKARIAK.
- 2.- EUROPAKO KONTENTZIOA ETA ITUN KONSTITUZIONALA.
- 3.- ITUN KONSTITUZIONALAREN EDUKIAK. AZTERKETA KRITIKOA.
- 4.- ITUN KONSTITUZIONALA ETA EUSKAL HERRIA: HERRIEN EUROPA UKATZEA.

II.- GURE ALTERNATIBA ITUN KONSTITUZIONALARI.

- 1.- EGUNGO ITUN KONSTITUZIONALARI EZ.
- 2.- MOBILIZAZIO SOZIALERAKO PROIEKTU POLITIKOA.
- 3.- HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK.

SARRERA

2004ko ekainean onartu zuen Europako Batzordeak Europako eraikuntza eredua finkatzen duen Itun Konstituzionalaren zirriborroa. Eraikuntza eredu honen kontra dagoela adierazi du LAB sindikatuak eta **IPAR HEGOA** fundazioak jarrera azaltzen duten arrazoiak jaso ditu **HARITIK** argitalpenaren ale honetan.



Kontra egoteko ematen diren argudioak erabakiorrak dira:

Ez da prozesu konstituentetik egon, ez da Europako herrien eta hiritarren parte hartzerik egon.

Ez da oinarrizko eskubideak aitortzen dituen prozesu konstituentea. Ez dira babes sozialerako eskubidea, lan duina, etxebizitza, osasuna, hezkuntza eta gizon eta emakumeen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatzen.

Europako Estatuak beraientzat egindako proiektua da. Kultura nortasuna, hizkuntz eskubideak eta Europako Herrien autodeterminazio eskubidea ukatzen ditu.

Europako korporazio trasnazionalen mesedetan erabakitako proiektua da. Neoliberalismoaren oinarriak konstituzionalizatzen ditu: merkaturia politika ekonomikoaren ardatza, merkantzia eta kapitalen zirkulazio librea eta zerbitzu publikoen pribatizazioa (testuak interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak izendatzen ditu).

Proiektu eurozentrista da. Inmigrazioaren aurrean gotorlekua bihurtzen da Europa, eta OTANen zerbitzura dagoen potentzia militarra.

Argitalpen honetan azaltzen diren arrazoiengatik errefusatzen du LAB sindikatuak egungo prozesu konstituentea eta Europa berria eraikitzeke estrategia proposatzen du, parte hartzailea eta mobilizazio sozialean oinarritutakoa; Herrien Europa Soziala eraikitzeke estrategia.

1. EUROPAKO ERAIKUNTZAREN AURREKARIAK

1951. Ikatz eta Altzairuaren Europako Komunitatea sortzen da. Belgika, H. Alemania, Luxenburgo, estatu frantsesa, Italia, eta Herbereak. Nekazal Politika Bateratua egiten hasten dira.

Sei urte beranduago eta arrakastaren ondorioz, Erromako Itunak sinatzen dira eta Europako Komunitate Ekonomikoa (EEE) eta EURATOM sortzen dira, "merkatu komunari" hasiera emanez.

1967. Europako Komisioa, Ministroen Kontseilua eta Europako Parlamentua sortzen dira.

1992. Maastrichteko Ituna, kide diren estatuen arteko lankidetzeta jasotzen du defentsa, justizia eta barne gaietan. Europar Batasuna sortzen da (EB).

1992. Batasun ekonomiko eta monetarioa gauzatzen da; europar txanpona sortzen da, Europako Banku Zentrala antolatu eta merkantzien, pertsonen eta kapitalen zirkulazio librea finkatzen dute.

1995. Indarrean sartzen da Schengeneko.

2000ko abendua, Europako Kontseilua Nizan. Zabalkunde berria prestatzen da eta EBeko Oinarrizko Eskubideen Gutuna izenpetzen da.

2001eko abendua, Europako Kontseilua Laekeneko, Konbentzioaren deialdia egiten dute.

2003ko uztaila, Europaren etorkizunari buruzko Konbentzioa. Europarako Itun Konstituzionalaren proiektua aurkeztuz bukatzen ditu bere lanak.

2004ko ekaina, Itun Konstituzionala onartzen du Europako Kontseiluak.

Europaren unifikazio prozesuan eman diren urratsen helburu nagusia Europako merkatu bakarra osatzea izan da. Kapitala, merkantziak eta zerbitzuak hedatzeko gune homogenea sortzea, Estatuetakoko politika ekonomikoek sortarazten zituzten ezberdintasunak eta oztupoak kenduz. Merkatua bihurtzen da ekonomiaren zuzendari eta kompetentzia bere jarduerak kodea.

Egin diren Itunak kapitalaren Europa sortzeko bitartekoak dira izan, prozesua politikoki legitimatu nahian egin diren egokitzapen politikak bideratzeko tresnak.

Maastrichteko Ituna izan zen Europa neoliberalera eraikitzeko atzeragabeko urratsa ezarri zituen konbergentzia hizpideak direla eta. Ituna ezartzeak, jendartearen Europako eraikuntzatik aldentzea eragin zuen.

Aldentzea Europako parlamenturako hauteskundeetako zen abstentzio maila handian islatu zen (%50,2 oro har baina Erresuma Batuan %76,6ra eta Herbereetan %70era iritsi zen); beste isla kontrako mugimendu sozialen sorrera izan zen.

2001ean Leakeneko Deklarazioa egin zen, prozesu konstituentearen zilegitasun demokratiko eza ezkatuzeko asmoz. Deklarazioaren emaitza oso eskasa da; eskubide politiko, sozial eta ekonomikoak (Herrienak zein indibidualak) aitortuko dituen prozesu konstituyente demokratiko bat artikulatzeari bidea itxiz antzerki hutsa bilakatu zuen Europako Kontseiluak Europako Konstituzioa egiteko Konbentzioa.



Itun konstituzionala onartzeko planarekin batera, Estatu frantsesa eta Alemania korporazio transnazionalen nukleo gogorra artikulatzen ari dira; Europako proiektuak duen atxikimendu sozial eskasa Europako enpresa transnazionalen apustu sendoarekin ordezkatzeko da helburua. Bide honetako hasierako urratsa EADS (Europako aeronautika) izan da, bestelakoak etorriko direlarik: untzioen multinazional europear handia, 44,216-423 artikuluetako kooperazio berrindartuak esan-bidez gauzatu eta Europako merkatuaren aitzindaritzan oinarritzen diren Thyssen-Krupp eta HDW enpresa Alemanen eta Thales eta DCN enpresa frantsesen fusioa. Horrela uler daiteke EBk enpresa eta sektoreei dirulaguntza publikoak ematea debekatu arren, salbuespena egitea Europako interes komunarentzat garrantzitsua den proiektua bultzatzeko denean (167 art.). Hau da, dirulaguntzak debekatuak daude EBeko Estatuetan, baina ez dimentsio europearra duten kapitalak finkatzeko denean.

Europako Batzordeko erdigune berria (Barroso Batzordea) frantsesen eta alemanen esku dago, multinazional frantsesak eta alemanak Europako multinazionalak bihurtuko direla bermatzeko; bide batez Kontseiluak bere boterea mantentzen du jarduera estrategia zehaztu geroztik, Lisboako estrategia eta Kooperazio berrindartuak hain zuzen ere.

Beraz, hasieran bezala, egungo Europako Batasunak zerikusi gehiago du merkatu bateratuaren interesekin proiektu politiko sozial eta demokratiko batekin baino.

2. EUROPAKO KONBENTZIOA ETA ITUN KONSTITUZIONALA.

Itun konstituzionalaren abiapuntua 2001eko abenduaren 14 eta 15ean egin zen Europako Batzordearen Laekeneko bilera da.

Bilera honetan Europako etorkizunari buruzko Konbentzioa deitzea erabaki zuten, hiru gai planteatuz hausnarketarako:

- Hiritarrak proiektu eta instituzio europearretara gerturatzea.
- Batasun zabalduaren esparru politikoa egituratzea.
- Europar Batasuna egonkortasunerako faktorea izatea munduaren antolaketa berrian.

Ez da hiritarren parte hartzerik egon. Itun konstituzionala Europako Batzordearen erdigunean ordezkaturik dagoen Europako teknokraziak egin du. Informazio eta eztabaida ezaren aldeko apustua ez da besterik gabekoa izan, teknokratek erabiltzen duten ohizko estrategia da instituzio politikoenetik eta interes sozialetik kanpo dauden bestelako komunikazio eta akordio bideak dituztela ezkatuzeko.

Itun konstituzionalari buruzko eztabaida egiteko Konbentzioa ez zen inolako parlamentuan hautatu, are gutxiago hauteskunde prozesu batean. Estatuetakoko gobernuak osatzen duten Europako Kontseiluak erabaki zituen bere osaketa eta bertako kideen eginbeharrak.

Valery Giscard d'Estaing izendatu zuten Konbentzioaren buru, eskuin frantses atzerakoiaren ordezkari nabarmena; honek gune gogor bat osatu zuen Europako multinazionalekin lotura zuzenak zituzten exekutibo estatalekin eta "consenso" delako lan ereduak inposatu zuten Konbentzioan, ez zegoen bozketarik eta lehendakariak interpretatzen zituen kontsentsoak.

Ordezkaritza parlamentarioaren pisua oso eskasa izan zen, aukera politiko esanguratsuak kanpoan geratu zirelarik. Ez zegoen ordezkariak sozialik.

Konbentzioaren eztabaidekin bat, paraleloki, Europarako Konstituzioa izango den Itunari forma eman zioten, "kontsentsu" bidez onartuz Konbentzioan 2003ko ekainaren 13an eta uztailaren 10ean.

Konbentzioak 2003ko ekainean eramaten du Salonikako Europako Kontseilura bere Europako Konstituzio zirriborroa.

Etorbizuneko Batasuneko Estatu kideek 2006 baino lehen ratifikatu beharko dute, 2006ko azaroaren 1ean indarrean sartzea aurreikusten delarik.

Azkenean onartzen bada, Estatuak 2009rako egokitu beharko dituzte bere legeriak Itun konstituzionalak esaten duenarekin.

3. ITUN KONSTITUZIONALAREN EDUKIAK. AZTERKETA KRITIKOA

EDUKIA hiru ataletan banatzen da:

- I atala. Batasunaren definizioa eta helburuak.
- II atala. Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna. Konstituzioaren eduki ekonomiko neoliberalak izenda ditzakegunak jasotzen ditu, xehetasun handiz.
- III atala. Batasuneko politika eta funtzionamenduari buruzkoa.

Oinarrizko bi **KRITIKA**:

- **PROZEDURA.** Aldez aurretik esan dugunez, konstituzioaren testu proposamena Europa osatzen duten herri eta hiritarrei bizkar emanez egin da. XIX. mendeko beste prozesu konstituenteeekin duen parekotasun bakarra Konstituzio hitza da, zilegitasuna lortu nahian erabiltzen dutena baina horrelako izena duen testu baten helburuei erantzunik eman gabe.

Konbentzioak ez du sekulan proiektua bere osotasunean eztabadaitu eta begi-bistakoa da EBko Konstituzioa izan behar lukeenaren izaera ukatzaile eta antidemokratikoa.

Hori dela eta, Europako Konstituzioa baino egokiagoa da Itun Konstituzionala deitura, Estatuaren arteko ituna den heinean.

- **EDUKIAK.** Giscard D'Estaingek proposatutako Itun konstituzionalak Europa neoliberalak arautzen du eta ondorioz, agintzen duten klaseen interesen mesedekoa da.



Alde kritiko hauek konstituzioaren testuan jasotzen dira:

3.1.- Erabakiak hartzeko garaian

Botere banaketa eta politika ekonomikoen kudeaketa demokratikoa Itun Konstituzionalaren biktimak dira.

Orekatu egiten da Batzordearen eta Kontseiluaren jardura, bigarrenak bere papera indartuz; parlamentua ahalmen legegile gutxiko ordezkari lan formaletara mugatzen da. Kontseilu eta Parlamentuaren artean elkar erabakitze gai gehiago daude baina **errealitatea da Estatuetakoa gobernua direla garrantzizko gaietan legeak egiten dituztenak Batzordearekin batera, Kontseiluaren bidez.** Parlamentuak ez du negoziaketa hauetan parte hartzeko inolako ahalmenik, asko jota, beto aukera du gai batzuetan.

Testuak ordezkarietako instituzioak ez diren organoen erabakitze gaitasunaren aldeko apustua egiten du. Are gehiago, Itunak berak kontrol politikotik at kokatu dituen organoen aldekoa: Europako Batzordea, Banku Zentrala eta Justizia Tribunalak. Hainbat adituek diotenez, hauek dira bereziki sensibileak multinazional handien eta patronal europarren presioen aurrean.

Parlamentuaren, Europaren eta Estatuaren kontrol gabe, Europako Banku Zentralaren esku dago:

- Politika ekonomiko monetaristen aplikazioa (29.2 art).
- Merkatu irekiaren eta kompetentzia librearen defentsa (III atala, 69.2 eta 77 art).
- Defizit publikoa kentzea (III atala, 76 art).
- EBZk edo Estatuetakoa Bankuek zuzenbide publikoko enpresei maileguak eta deskubiertoak ematea debekatzea banku pribatuetara jotzeko aukera dutenean. (art.III, 73.1)
- Ortodoxia ekonomiko neoliberalak zaintzea (III atala, 88 art).

EBZarekin batera lobby gune bat dago itzalean, elkarrizketa soziala deritzona bahitzen duena. Hauen artean esanguratsuak dira ehun bat multinazional europar biltzen dituen ERT, FdeEE eta Unice.

Ekimen hiritarrerako eskubidea deitzen duten parte hartze sozialerako bitarteko mugatu bat jasotzen da (46.4 art) baina parlamentuari egin daitekeen **eskaera eskubidea** Estatuako kideetan bizi edo egoitza duten pertsona fisiko eta juridiko orori onartzen bazaio ere, ekimen hiritarrerako eskubidea hiritarrek dute bakarrik, bestelako subjektu juridikoek ez dute horrelako aukerarik.

Dena dela, ekimen hiritarrerako eskubidearen bidez “Estatu kide kopuru esagurantsu bateko gutxienez miloi bat hiritarrek” Batzordearen aurrean proposamen bat aurkezteko aukera eduki arren, Batzordeak ez du bideratzeko obligaziorik, eta bideratuz gero ez du zertan eskaera egin duten hiritarrek esandakoa errespetatuz egin beharrik. Ezin da esan benetako herri ekimen legegilea denik.

Laburbilduz, testu konstituzionala Europa neoliberalaren, teknokraten eta lobby handien interesen integrazio bat da.

3.2.- Eskubideen aitortza eta eduki sozialak

II atalean **2000ko Nizako Eskubideen Gutuna** jasotzen da, eduki sozial eta kulturaletan ONUren Giza Eskubideen Gutunak, 1966ko Nazioarteko Itunak eta 1991eko Turineko Gutun Sozialaren berrikuspenak jasotakoaren azpitik dagoena.

Eskubideen bermatzailea izan behar lukeen prozesu konstituentea (eskubide guztiena), **kapital multinazional europarraren eskubideak bermatzeko prozesua** bilakatu da. Bereziki zaintzen dira jabego eskubidea eta merkatuaren lehia librea.

Zatitu egiten da eskubideen aitortza, eskubideak zentzu hertsian batetik (bertan jasotzen dira eskubide zibilak, politikoak eta jabego edukia dutenak batik bat); eta jarduerarako printzipioak bestetik, hauen artean daudelarik eskubide sozialak (II atala, 52.5 art). Lehenengoak Auzitegietan ere exijitu daitezke; printzipiotzat jotzen direnak, aldiz, ezin dira zuzenean exijitu administrazio publikoei eta betetze maila lehiakortasun ekonomikoaren hizpideen araberakoa da.

Proiektuak, **EBeko elementu nagusi gisa, lege bihurtzen du 2000. urtean Lisboako Estrategian bultzatutako erreforma neoliberalen programa, kide diren Estaturen politika ekonomiko eta sozialak zuzentzen dituena**. Estrategia neoliberal hau sistema ekonomikoari buruzko gaiak arautzen dituen III ataleko funtsezko edukia da, aukera bakar moduan jasotzen dena, xehetasun osoz, eta merkatu irekian eta lehia libreko ekonomian oinarrituz (behin eta berriro errepikatzen dute hau).

Kideen arteko lehiakortasun librea eta distortsiorik gabekoa ezartzen da eta merkataritza, zerbitzu eta kapitalaren joan-etorri librea bermatzen da (I atala - 53-2 art).

Legez ezartzen ditu aurrekontuen oreka eta zero aurrekontuak, EB zorpetzea erabat debekatuz.

Kide diren Estatuak izango dira Europako aurrekontuaren zenbatekoa erabakiko dutenak, Europako Parlamentuaren esku hartzerik gabe (I atala -29-3 art).

Testuan “lan egiteko eskubidea” jasotzen da, ez dago lan eskubiderik (II ataleko 15 art); enplegu osoaren helburuaren ordean enplegu “maila handia”, etxebizitza duinerako eskubidea beharrean “etxebizitza gaietan laguntzea” (II atala 34.3 art) eta oinarritzko errentaren eskubidea “laguntza soziala” edukitzeko eskubidera mugatzen da. Bestalde, testuak ez ditu zerbitzu publikoak bermatzen.

tzen eta babesten, baina gainera “interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak” bihurtzen ditu, ateak irekiz pribatizazioari eta oinarritzko zerbitzuen merkantilizazioari.

Nabarmentzekoa da ere **politika sozialak bateratu eta lan eta seguritate sozialeko eskubide minimoak bermatuko dituen Europako esparrua osatzearen aukera ukatzen dela** proiektuan. Besteak beste, Europako oinarritzko soldata, Europako pentsio sistema edo osasun sistema bateratua ezartzea eragozten du Itun konstituzionalak.



3.3.- Gizon eta emakumeen parekidetasunari buruz

Mugimendu feministako ahots garrantzitsuek esan dutenez, Testuak gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna bultzatzeko neurri eraginkorrak jasotzeko aukera handia galtzeaz gain, mehatxua izan daiteke mugimendu feministak eskuratutako garaipen sozial esanguratsuak galtzeko Europa mailan.

Ez da gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna Europar Batasunean errespetatu beharreko oinarritzko baloretzat aitortzen (2 art), bultzatu beharreko helburu gisa aipatzen da (3 art). Ezberdintasuna ez da edonolakoa. 2 artikuluan jasotako baloreak zuzenean exijitu daitezke Estatuei eta hauek zigortuak izan daitezke, eskubideak galdu ditzakete – baita boto eskubidea ere – larriki eta iraunkorki bortxatuz gero; aldiz, 3. artikuluan jasotzen direnak ez dute exijentzia maila berdina (59 art) bultzatu beharreko helburuak besterik ez direlako.

Aurreko puntu batean aipatu denez, Itun konstituzionalak eredu ekonomiko neoliberalaren inposatzen du, antolaketa sozial patriarkalaren iraupena bermatzen duelarik. Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak izendatuz **zerbitzu publikoen** (haur eskolak, adineko pertsonen zaintza, gaixoen zaintza...) **pribatizazioari ateak irekitzea** eragin handia du emakumeen bizitzan, emakumeei dagokielako zaintza lan hauek muxu truk egitea, enplegu bat eskuratzeko zailtasunak areagotuz. Bestalde, babes sozialeko sistemak suntsitzeak ekarriko duen enplegu publikoaren galerak ere emakumeengan eragingo du, sektore hauean dagoelako batik bat emakumeen enplegua.

Ez da genero biolentzia esan-bidez jasotzen, Europako egoerak ezer onik erakutsi arren. **Ez dira eskubide sexualak eta birsorkuntzakoak aipatzen**, ezta sare sanitario publikoetan abaro legala egiteko eskubidea ere. Ez esate hauek zerikusi handia dute Elizari aitortzen zaion pisuarekin, zeinaren hierarkiek gizonekiko emakumeen menpekotasuna aldarrikatzen jarraitzen dute.

3.4.- Nazioarteko harremanei dagokionez.

Testuak globalizazio armatuan eta prebentziozko gerran sartzen du EB, berea egiten du Iparramerikatako militarismoaren diskurtsoa. Bakearen aldeko eta terrorismoaren kontrako balizko jarrerarekin hirugarren herrialdeetan esku hartze militarra legalizatzea ezkutatu nahi da (309 art)

OTANen bidezko AEBeko hegemoniaren pean geratzen da EBeko kanpo politika eta defentsa politika (I atala – 40.2 art).

Defentsa gaietan, 2003ko ekainaren 20ko "Europa seguru bat mundu hobe batean" proposamenean definitutako Solana plana jarraitu da. Hainbat printzipio aldarrikatzen dira bertan, besteak beste:

- Prebentziozko interbentzio militarrik.
- Armamenturako Europako Agentzia eratzea.
- Gaitasun militarreko inbertsioak bultzatzea.

Itunean jaso dira baita ere:

- Batasunari "Kide diren Estatuetan terrorismo arriskuari aurre hartzeko" beharrezkoak diren bitartekoak mobilizatzea behartzen dion elkartasun klausula.
- "Segurtasun gaietan elkarkidetzaren operatiboa bultzatu eta areagotzea" bermatuko duen Batzorde iraunkorra sortzea Ministroen Kontseiluaren baitan (III atala-162 art). Era berean, Europako Kontseiluak mehatxu diren arriskuak aldi oro neurtzea aurreikusten du (III atala-231 art).
- Eurojust (epaile, polizi eta fiskalez osatutako lankidetzaren judizialerako erakundea) eta Europolaren eginbeharrak goitik behera arautzen ditu, baina ez da zehazten kontrol parlamentarioaren pean egongo direnik.
- Sechengenetik ateratako protokoloa ezkutua dago, "terrorismo", disidentzia, etorkinen kontrako jardurekin

EBaren sare instituzionalak bermatzen duena:

- Europa potentzia militarra, defentsa eta kanpo politiketan (160.000 miloi euro).
- Europa gotorlekua, inmigrazioaren aurrean.
- Europa neoliberalak, langileen kontra.

Testuak lankidetzaren egituratu egonkorra deritzona jasotzen du, elite militar bat osatzea suposatzen duena, "gaitasun militar handiagoko hizpideak bete eta gaia lotura handiagokoak diren konpromisoak izenpetu dituzten Estatu kideen artean osatua eginkizun exijenteenak egiteko" (41 art)-

3.5.- Ingurugiro gaietan

Egia da gai honetan hainbat direktiba europar interesgarri egon direla ekosistema, fauna eta flora zaintzeko; dena dela, politika produktibisten defentsa sutsuak eta etekin guztia atera nahiak baldintzatzen du Europako esku hartzea ingurugiro gaietan, interbentzioak mixeria ezkutatzeko partxeak direlarik.

Ituna saiatu arren, ezinezkoa da garapen jasangarriak eta produktibismoak bat egitea, kontrako norabidean dauden eta praktikan produktibismoa da nagusitzen dena. Ingurugiro osasuntsuaren eskubide indibidual eta kolektiboa nagusitzen da jabego pribatuaren eta enpresa askatasunaren ginetatik edo egiten diren adierazpenak itxurakeri hutsak dira.

Proiektuak ez du pertsonak ingurumen osasuntsurako duten eskubidea jasotzen, EBk eta Estatu kideek izenpetutako Aarhuseko Hitzarmenak aitortu zuena bere momentuan. Bere ordean, ingurumen-erak

ko babes maila handiaren beharra aitortzen da (II atala – 37 art). Beraz, aurrekari hauekin eta sektore politikak aztertu ondoren, Itunean jasotakoak ez du inolako sinesgarritasunik (III atala 129 art), ez dielako galdera hauei erantzunik ematen: Nola bateragarri egin mugikortasuna areagotzea jasangarritasunarekin? bateragarri egin errepideetan oinarritzen den 2003ko azpiegituren eraikuntzarako Plana, eta energia pilo kontsumitu eta lurzorua lapurtzen duen AHT, jasangarritasunarekin? Nola bateragarri egin energi kontsumoaren dependentzia eta zentralizazioa, nork bere burua aski izate eta inguruarekiko lotura orekatuarekin? Nola bateragarri egin batasuneko nekazaritza politika, nekazal inguru, elikatze burujabetza, senitarteko ekoizpen jasangarri eta kalitateko elikagai osasuntsuak ekoiztearekin; bere helburua kontzentrazioa denean; ekoizpen intentsibo erraldoiak, ongarrimikimiko gehiegi erabiltzea eta baita Bruselak liberatu berri duen manipulazio genetikoak bada?

4.- ITUN KONSTITUZIONALA ETA EUSKAL HERRIA: HERRIEN EUROPARI UKO EGITEN ZAIO

Proiektuak eragin kaltegarriak ditu euskal nazioaren aitortzarekin lotuak dauden gaietan.

Estatuak dira egungo Itunaren eragile eta kudeatzaile nagusiak; nazio aniztasunari buruzko aipamenak kendu egin ziren hainbat presio zirela eta, espainiako ordezkariak egindakoak tarteko. Europako herriei buruzko erreferentzia kendu da **eta testuak esan-bidez aldarrikatzen du Batasuna Estatuak osatzen dutela (I atala-1 art). s (art.I-1)**. Europako Arartekoari erreferentzia egiten dion artikuluan ere, plurala kendu zen "Herrien" arartekoa izan ez zedin, PP eta PSOEren presioak zirela eta.

5. art dioenez *"Batasunak Estatu kideen nazio nortasuna errespetatuko du, hauen funtsezko egitura politiko eta konstituzionala banezina dena, baita autonomi lokala eta erregionalari dagokionez ere. Estatuaren oinarritzko funtzioak errespetatuko ditu, bereziki lurralde batasuna, ordenu publikoa mantentzea eta barne segurtasuna bermatzea helburu dutenak"*. Deklarazio honen helburua (espainiako gobernuak eskatuta jaso zena) **autodeterminazioaren eskubide demokratikoa gauzatzeko aukera guztiak ekiditea da**, eskubide hau 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean aitortuak egon arren.

Batasunaren eskuduntzak Estatu kideen esleipen printzipiotik sortzen dira, hauentzat bakarrik aitortzen direlarik (I atala . 9.2 art). EB osatzen duten Estatuetakoko gobernu ordezkariak osatzen duten Europako Kontseiluak du EBren goreneko botere exekutiboa. Kontseiluak izendatuko ditu komisarioak, lehendakaritza, lehendakari ordea eta kanpo gaietarako ministroa, hauek osatuko dutelarik Europako Batzordea. Euskal Herria, gainontzeko Estaturik gabeko nazioak bezalaxe, ez da bertan ordezkaturik egongo.

Erregioen Batzordearen eskuduntzak zabaltzeko proposamenak baztertu dira eta izaera erabat konstituzionalak izango du, galdetua izan behar den gaien zerranda eguneratu ez bada ere.

Hizkuntz eskubideen aitortzean, "Batasunak bere aniztasun kultural eta linguistikoaren aberastasuna errespetatuko duela, eta Europako ondare kulturala mantendu eta garatzea zainduko duela"

esan arren, Estatuko hizkuntza ofizialak dira aitortzen diren bakarrak (II-22 eta III-11 art). **Ez dira hizkuntza ez ofizialak erabiltzea bermatuko duten bitarteko legalik edo neurririk jasotzen** eta ez ditu kontutan hartzen esanguratsuak diren eskubideen Gutun, Aholku eta hizkuntz eskubideen eta gutxiengo nazionalen eskubideak babesten dituen hainbat nazioarteko Itun.

8 artikulua EBko hiritar guztien naziotasun bikoitza aitortzen du, gure kasuan ez da Euskal Herrikoa eta Europakoa izango, espainiarra/frantsesa eta europearra baizik.

Ratifikatzeko aurkeztu den Itun proiektua atzerapauso nabarmena izango da Europako naziotasun aniztasunarentzat hasierako zirriborroekin alderatuz gero, bai eta nazioarte mailako arategietan aitortuak dauden eskubideekin alderatuz ere.

II.- GURE ALTERNATIBA EUROPAKO ITUN KONSTITUZIONALARI

1.- EGUNGO ITUN KONSTITUZIONALARI EZ

Asko dira egungo Itun konstituzionalari EZETZ esateko arrazoiak:

EZ Ituna egiteko erabilitako prozedurari, parte hatze soziala baztertu duena bere elaborazioan, eztabaidan eta onartzean.

EZ oinarrizko eskubideen gutuna Europako eta estatuko legeetara mugatzeari.

EZ gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna Batasunaren balore gisa baztertzeari, Estatuei betetzea exijitu ezin daitekeen printzipio adierazpen hutsa bihurtzen delako.

EZ herrietan autodeterminazio eskubidea baztertzeari, 1996ko eskubide zibil eta politikoen nazioarteko itunean jaso arren.

EZ hizkuntz eskubideen ukazioari, euskararen ukazioari hain zuzen ere.

EZ "demokrazia sozial aurreratu" deritzotenaren edukiak UNICEEn (Unión de Industrias de la Comunidad Europea) "lehiarkotasun handiko" interesen pean geratzeari.

EZ giza eskubideak eta eskubide sozialak "Helburuak eta printzipioak" izendatzeari, horrela oso exijitze maila eskasa dute EBn eta Estatuetan.

EZ eredu ekonomiko neoliberal konstituzionalizatzeari, Lisboan bultzatutako erreformak jasotzeari eta politika ekonomikoaren antolamendua merkatuaren esku geratzeari.

EZ Europako Banku Zentralaren autonomiari, edonolako kontrol sozialetik at dagoelarik.

EZ kanpo politika OTANen bidez AEBen pean geratzeari.

EZ inmigrazioaren aurrean Europa gotorlekua bilakatzeari.

EZ nazioarteko harremanen euro zentrismoari.

EZ erakunde sindikalentzat diseinatutako osagarri paperari.

2.- MOBILIZAZIO SOZIALERAKO PROIEKTU POLITIKOA

Itunarekin edo Itunik gabe, eta hauteskunde prozesuetatik haratago, Europako ezkerria oinarrizko lau adostasun artikulatzeko gai izan behar da Europa proiektu sozialaz eraikitzea zuzentzeko indarrak metatzea ahalbideratzeko:



- Europa soziala garatzeko kontratu sozial berria.
- Herrien autodeterminazio eskubide aitortzeko pakto politikoa.
- Erabakietan hiritarrak parte hartzeko eta gizon eta emakumeen eskubide eta aukera berdintasuna galeraztuen duten oztopoak gainditzeko pakto zibila.
- Elkarren arteko errespetuan, justizia sozialean, kooperazioan, elkartasunean eta gatazken konponbide demokratikoan oinarritutako nazioarteko harremanetarako ereduak eraikitzeko nazioarteko paktua.

3.- HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

Oinarrizko bi helburu:

- LABek Euskal Estatu independentea osatzeko beharra planteatzen dugu.
- Herrien Europa Soziala aldarrikatzen dugu.

Hiru estrategia:

3.1.- Herrien Europarako proiektu politikoa

Beharrezkoa da benetako prozesu konstituentea egitea Europarako, Europako hiritarren parte hartzearekin eta Europa osatzen duten herrien aitortza eta errespetuan oinarritutakoa.

Europako eraikuntza prozesuak kontutan hartu beharrekoak:

- Europako Herriak proiektu autonomo identitario gisa. Mundualizazio neoliberalak inposatutako nazioarteko harremanei alternatiba direla, kapitalari boterea borrokatzeko marko propioak.
- Giza eskubideak jaso eta aitortuko dituen eraikuntza prozesua izan behar dela, 1966ko Nazioarteko Itunean jasotakoak gutxienez.
- Beharrezkoa dela genero diskriminazioa ekidin eta gizon eta emakumeen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko neurriak artikulatzea.
- Hiritarrei galdetzeko eta hiritarren parte hartzea bideratzeko bitartekoak sortu behar direla.
- Pertsonen zerbitzura egongo diren Europako instituzioak bultzatu behar direla, neurriak bultzatuz hauetan gizon eta emakumeen presentzia orekatua bermatzeko.

- Administrazioen jarduerak eta politika publikoak kontrolatuko dituen Europako behatokia sortzea.
- Behatokia sortzea herri guztietan informaziorako eskubidea bermatzeko, benetakoa eta objektiboa.



3.2.- Estrategia sindikala EBko testuinguruan

- **Eraldaketarako ezkerreko proiektu politikoaren berregitea, abiapuntuak izanik:**

- Neoliberalismoaren errotiko kritika.
- Mugimendu sindikalaren eta ezkerreko mugimenduaren berrindartze ideologikoa.
- Langile klasearen berrosaketa aldeketarako subjektua den heinean eta langile mugimendua- ren balioztatzea.
- Biztanlego berri bat eredu ezarritako eredu androzentrikoko eta euro zentristarekin apurtuko duena, eta lan produktiboa zein erreproduktiboa jasoko duena.
- Europako Herriak proiektu autonomo identitarioa. Kapitalari boterea borrokatzeko marko propioa.

- **Europako esparru soziolaborala.**

Europako herrietako errealitate sindikalaren errespetua eta norberak lan harremanetarako bere esparru propioa edukitzeko eskubidea errespetatzea abiapuntutzat hartuz, oinarrizko eskubideak bermatuko dituen esparru soziolaborala eratzeko akordio sindikala bultzatzea planteatzen dugu. Hauek dira planteatzen ditugun helburuak, besteak beste:

- **Europako gutun soziala**, pentsio duinen izaera unibertsala, enplegu osoa eta kalitatezko enplegua bermatzeko politika aktiboak, lanorduaren murrizketa enplegu politiketan jasotzea, aberastasuna banatzea, emakumeak ordaindutako lanetan parte hartzeko oztopoak kentzea, bizitza laborala eta pertsonala bateragarri egiteko politika eraginkorrak bultzatzea bermatuko dituena. Ordezkaritza eta greba eskubide sindikala bermatzea.
- **Europako Sindikatuen Konfederazio eredu berria**, Europako herrietan ordezkaritza duten sindikatu guztiak bertan parte hartzeko aukera izango dute, bazterketarik gabe, estaturik gabeko nazioetako sindikatuak barne.
- Enpresa multinazionalak egiten dituzten **deslokalizazio eta desregulizazio politikak kontrola-tzeko nazioarteko batzordea**.

- **Europaren garapenerako agentzia**, planifikazio ekonomikoa, energi politikak eta lurraldearen antolamendurako politikari buruzko erabakiak koordinatuko dituena.
- **Konbentzio soziala**, Europa soziala eta hiritarren parte hartzea garatzeko.
- **Europako Foro Sozialak garatzea**, ekintza politiko eta sozialetan adostasunak lortzeko bitartekoak diren heinean.

3.3.- Bestalako jendarte ereduaren aldeko ezkerreko proiektua

Bere oinarriak:

- Herrien burujabetza politikoa, ekonomikoa eta soziala.
- Kooperazioa, akordioak eta Europako herrien arteko elkartasuna.
- Garapen ekonomiko jasagarrariko ereduaren eraikuntza, endogenoak, kontserbatzailea, biodibertsitatearekin bateragarria, energia alternatiboak erabiliko dituena...
- Jendarte eredu ez patriarkal eta integratzailearen eraikuntza, eskubideak aitortuko dituena, aukera berdintasuna bermatu eta biak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren politikak finkatuko dituena.
- Dibertsitatea jasoko duen Europako proiektua, xenofobiaren kontrako aktiboa delako.
- Erabakiak hartzerakoan demokratikoa izango den ereduaren eraikuntza.
- Turineko Gutun Soziala (gutxienez) jasoko duen esparru soziorabial europarraren eraikuntza.
- Nazioarteko instituzio berriak sortu, elkartasunetik, multiporalitatetik eta herrien eskubideen defentsatik jardungo duena, demokrazia parte hartzealean oinarrituko dena hain zuzen ere.
- Aurrekontu eta fiskalitate politika progresiboa eta birbanatzailea bermatzea.